

-ren /2019FORU DEKRETUAREN proiektua. Foru dekretu horren bidez aldatu nahi dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua (martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia); Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia); eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia).

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen azken xedapenetako hirugarrenak xedatzen du Nafarroako Gobernuak behar diren xedapen guztiak emanen dituela foru lege hori garatzeko eta aplikatzeko.

Aipatu legearen 109.1.3 artikulua dioenez, zergaren subjektu pasiboak behartuak daude beren eragiketa guztien faktura luzatu eta ematera, eta, betiere, erregelamendu bidez zehaztuko diren beharkizunak, mugak eta baldintzak bete beharko ditu fakturak.

Bestalde, Hitzarmen Ekonomikoaren 3. artikulua ezartzen du ezen betiere Estatuari dagokiola inportazioaren eskubideen eta inportazioaren kargen arauketa, kudeaketa, likidazioa, bilketa, ikuskapena eta berrikuspena zerga berezietan eta BEZan; eta legegorputz beraren 32. artikulua zehazten du ezen Nafarroak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruko tributu-ahala erabiliz, aplikatu beharko dituela Estatuko lurraldean uneoro indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berberak,

nahiz eta bere ereduak onesten ahalko dituen aitorpenak eta diru-sarrerak egiteko.

Beste alde batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 80. artikulua ezartzen du ezen erregelamenduz zehaztuko direla aipatutako zergari lotutako errenta zergapetuak ordaintzen dituzten pertsona juridikoen eta entitateen atxikipena egiteko betebeharrak.

Foru dekretu honek ditu 3 artikulua eta azken xedapen bat. Lehenbiziko artikulua Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen du, bigarren artikulua zenbait aldaketa egiten ditu Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan, eta hirugarren artikulua aldatzen du Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua.

Joan den abenduaren 29an argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentaraua, zeinaren bidez aldatzen baitira 2006/112/EE eta 2009/132/EE zuzentaruak, zenbait betebeharrak dagokienez, zerbitzu emateen eta ondasunen urruneko salmenten balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez. Zuzentaru horrek BEZaren zuzentaru harmonizatua aldatzen du, zerbitzuak elektronikoki, telekomunikazioen bidez eta irrati-difusio eta telebista bidez ematearen tributazio arauari dagokienez, hartzailea EZ denean enpresaburu edo profesional bat, enpresaburu edo profesional gisa diharduena.

Hala, 2019ko urtarrilaren lelik aurrerako ondorioekin, Europar Batasuneko estatu bakar batean finkatutako mikroenpresek, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako azken kontsumitzaileei noizbehinka zerbitzu ematen badiete, zerbitzuaren hartzailea den kontsumitzailea finkatua dagoen estatuan zerbitzu horiengatik tributatzegatik dituzten karga administratiboak eta tributuzkoak murrizteko, urteko 10.000 euro arteko atalase amankomuna ezartzen da Europar Batasunerako, eta, hala, hori gaingitzen ez bada, zerbitzu emate horiek jarraituko dute edukitzen mikroenpresa finkatuta dagoen estatuko balio erantsiaren gaineko zerga. Nolanahi ere, posible izanen da, orobat, enpresaburuek edo profesionalek, hala nahi izanez gero, EBko beste estatuan, kontsumokoan, tributatzea, nahiz eta aipatutako atalasea ez gaingitu. Uztailaren 3ko 6/2018 Legea onestearen bidez (2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa) egin zen zuzentarauaren transposizioa abenduaren 28ko 37/1992 Legea (lege horrek jorratu zuen balio erantsiaren gaineko zerga). Horrenbestez, beharrezkoa da doikuntza teknikoak egitea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduan.

Bestalde, erraztasunak emate aldera tributu arloko betebeharrak borondatez betetzeko eta leihatilako sistema erraztuak erabiltzeko, ezartzen da ezen telekomunikazioetako, irrati-difusioko eta telebistako eta elektronikoki emandako zerbitzuei aplikatu beharreko araubide bereziak dituzten subjektu pasiboiei fakturazioaren arloan aplikatzekoa den araudia izanen dela EBko kide den identifikazioko estatukoa, eta ez kontsumoko estatukoa.

Aurrekoa gorabehera, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak eramateko sistema berria Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzu telematikoen bidez (Informazioa Berehala Emateko sistema, IBE, aurrerantzean) aplikatzearen lehenbiziko fasea gainditu da, eta, hala, beharrezkoa da aldaketa batzuk egitea zergaren erregelamenduan, borondatezko aukera errazteko tributu kudeaketa sistema berria aplikatzeko.

Helburu berarekin, arautzen da zer informazio eman behar duten subjektu pasiboek IBEa erabiltzera beharturik gelditu aurreko urte naturalean egindako eragiketei dagokienez.

Orobat, beharrezkoa izanen da informatzea dirua itzultzeko dokumentu elektronikoez, zeinak, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, nahitaezkoak izanen baitira bidaiarien araubidean egiten diren esportazioaren gaineko zergaren itzulketetarako.

Azkenik, hainbat aldaketa ezartzen dira, erregelamenduan egiten diren indargabetutako arauzko xedapenen aipamenak eguneratze aldera, indarreko araudira egokituz, edo zergari buruzko legearen idazketari berari egokitze aldera. Halaber, doikuntza tekniko bat egiten da, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzean zenbait muga koordina daitezten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboaren metodoarekin.

Fakturazioko betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan, aldatzen dira zenbait arau, jorratzen dutenak fakturazioaren arloan aplikatu beharreko araudia, zeina izanen baita, 2019ko

urtarrilaren leterik aurrera, identifikazioko EBko estatuaren araudia telekomunikazioetako, irrati-difusioko eta telebistako eta elektronikoki emandako zerbitzuei aplikatu beharreko araubide bereziak dituzten subjektu pasiboentzat.

Bestalde, zergatik salbuetsita egonik nahitaez faktura eman beharreko eragiketen zerrenda eguneratu egiten da, eta beste finantza entitate batzuk salbuesten dira (aseguru eta kreditu entitateekin jada egiten zen bezala) zergatik salbuetsita dauden aseguru- eta finantza-eragiketengatik faktura nahitaez egin behar izatetik. Bestalde, Nafarroako Zerga Ogasunak betebeharrak horretatik libre uzten ahal ditu erregelamendu horretan berariaz aipatutakoez bestelako enpresaburu edo profesional batzuk, interesdunak aurretik eskatuta, horretarako arrazoiak daudenean.

Aurrekoa gorabehera, bidaia agentzien araubide bereziari lotutako bidaia zerbitzuetara zabaltzen da Fakturazioko betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako fakturaziorako prozedura berezia, zeina aplikatu behar baitzaie zerbitzu horiek merkaturatzean beste enpresaburu edo profesional batzuen izenean eta haien kontura esku hartzen duten bidaia agentziei.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduan, batetik aldatzen da jabetza intelektualetik eratorritako kapital higidarriaren etekineterako atxikipen portzentajea, zergaduna egilea ez denean, eta, bestetik, zehazten da zer beharkizun bete behar dituzten biziarteko errenta

aseguratuek lehengoratzeko-mekanismoak daudenean, edo prestazioaldi ziurrak edo kontraaseguru formulak, bilatzen den helburua bermatzeko.

Horrenbestez, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluaren txostenaren arabera, eta Nafarroako Gobernuak 2019ko xxxx xxko bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Lehenbiziko artikulua.- Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren aldaketa.

Honela idatzita geldituko dira martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren manu hauek:

Bat. 9.1.2.B) artikulua, c) letrako lehenbiziko paragrafoa eta e) letrako bigarren eta bosgarren paragrafoak.

"c) Saltzaileak dagokion faktura egin beharko du; gainera, hala behar denean, itzulketako agiri elektronikoa ere igorri beharko du (agiri hori Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoa dago eskura). Hartan, eskuratutako ondasunak jasoko dira, eta, bereiz, egoki den zerga."

"Zerga Administrazioako Estatu Agentziak baimendutako entitate laguntzaileen bidez ere egiten ahalko da zergaren itzulketa, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezarriko du zer

baldintzatan ariko diren entitate horiek eta zer zenbatekokoak izanen diren komisioak.”

“Itzulketako agiri elektronikoa erabiltzen denean, hornitzaileak edo entitate laguntzaileak haren ikus-onespena egiaztatu beharko du, kontsulta eginez Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoan. Ondoren, bide elektronikoen bidez jasoko dute itzulketa egin dela”.

Bi. 14. artikulua.

“14. artikulua. Zenbait ondasunen entrega eta zerbitzu emate batzuk ez zergapetzeko aukera.

Subjektu pasibo batek aukeratu badu lurraldetik kanpo tributatzea ondasunak entregatzeagatiko zerga (entrega horiek jaso dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide amankomuna arautzen duen Legearen 68. artikuluko laugarren apartatuan) eta zerbitzu emateagatiko zerga (zerbitzu emate horiek aurreikusi dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide amankomuna arautzen duen Legearen 70. artikuluko lehenbiziko apartatuan, 8. zenbakian), zerga administrazioaren aurrean justifikatu beharko du bai egindako entregak bai emandako zerbitzuak EBko beste estatu batean aitortu direla.

Subjektu pasiboak berriz egin beharko ditu aipatutako aukerak bi urte naturalen buruan, eta bestela automatikoki errebokaturik geldituko dira.”

Hiru. 15 quater.7.b). artikulua.

"b) Kasuan kasuko ondasun higiezinak erosteagatik jasandako zerga osorik edo partez kentzeko eskubidea dutenak."

Lau. 17.bis. artikulua. Bat, lehenbiziko paragrafoa, eta Bi.1.1, hirugarren paragrafoa.

"Bat. Zergari buruzko Legearen 37.Bi.1.6 artikuko bigarren paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako (zenbait etxebizitza entregatzeari buruzkoa da), zer inguruabarretan duen hartzaileak eskubidea Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen VII. tituluko III. kapituluan aurreikusitako araubide berezia aplikatzeko, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen VIII. tituluko IV. kapituluan aurreikusitakoa, eta geroko errentamenduetatik eratorritako errentei aplikatzekoa, hurrenez hurren, aipatutako 27/2014 Legearen 49.1 artikuluan ezarritako hobaria araubide amankomunean edo aipatutako 26/2016 Foru Legearen 93.1 artikuluan ezarritakoa; hori frogatzeko, aitorpen sinatu bat erabil daiteke, aipatutako hartzaileak sinatua eta subjektu pasiboari zuzendua, non hark adieraziko baitu, bere ardurapean, bete egin dela."

"Desgaitasuna izanik mugikortasun murriztua duten edo gurpila-aulkian dauden pertsonak garraiatzeko ibilgailuak erosteko baldintzak ez dira antzekotzat hartuko, baldin eta ibilgailu horiek autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasunari laguntzeko zerbitzu sozialak eskaintzen dituzten pertsona juridikoek edo entitateek erosi badituzte, hots, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak

Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aipatutakoek, bai eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko Legegintzako Errege Dekretuan aipatzen diren zerbitzu sozialak eskaintzen dituztenek ere, betiere erabiltzen badira ibilgailua edo ibilgailuak erostea eragin zuten pertsona-talde jakin batzuk ez diren beste batzuen ohiko garraiorako, edo ibilgailua edo ibilgailuak erostea eragin zuten lurralde edo geografia eremuez bestelakoetan erabiltzeko."

Bost. 32.2.b) artikulua.

"b) Aurre-aurreko urtean egindako eragiketa guztietan - aurreko a) letran aipatutakoez bestelakoak- aipatutako a) letran ezarritako zenbatekoa gainditu duten subjektu pasiboak.

Sei. 50. quater artikulua, bigarren paragrafoa.

"Fakturak bete beharko ditu Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 6. artikuluan ezarritako beharkizun guztiak (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori)."

Zazpi. 50 quinquies artikuluko 2. paragrafoa.

"2. Galarazi gabe Erregelamendu honen 50 quater artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa, entitateen artean egiten diren talde barneko eragiketak, betiere aplikatzen badute Zergaren Foru Legearen 108 sexies.bost artikuluan xedatutakoa, faktura bidez dokumentatu beharko dira, eta fakturak bete beharko ditu

Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 6. artikuluan ezarritako beharkizun guztiak (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori). Nolanahi ere, aipatutako eragiketen zerga-oinarri gisa adierazi beharko dira bai Zergaren Foru Legearen 108 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozkoa bai aipatutako foru legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozkoa, eta kasu bakoitzean egoki dena identifikatu beharko da."

Zortzi. 50 quinquiesdecies.3 artikulua.

"3. Faktura ematea bidezkoa denean, identifikazioko EBko estatuko arauekin bat eginen da."

Bederatzi. 53.2 artikulua.

"2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ez da aplikatzekoa izanen honako araubide bereziak dituzten jardueri dagokienez: araubide berezi erraztua; nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia; baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia; eta telekomunikazioetako, irrati-difusioko eta telebistako eta elektronikoki emandako zerbitzuen araubide berezia. Betiere, araubide berezi horien arauetan ezarritako salbuespenekin. Orobat, aurreko zenbakian xedatutakoa ez da aplikatzekoa izanen zergaren foru legearen 5. artikuluko lehen apartatuko e) letran aipatutako pertsonen garraiobide berriak entregatzen dituztenean noizbehinka."

Hamar. 54.3.a) artikulua.

"a) Egindako faktura mota, adieraziz faktura osoa edo erraztua den.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren titularrak emandako foru agindu bidez onetsiko diren erregistro elektronikoko eremuek eska dezakete beste zehaztapen batzuk sartzea, balio dezaketenak faktura jakin batzuk identifikatzeko (esaterako, hirugarrenek egindako fakturak), baita itzulketen agiri elektronikoak, ordainagiriak eta enpresaburuen jardueran edo profesionalen jardueran erabiltzen diren beste agiri batzuk ere, hain zuzen ere Erregelamendu honen 9.1.2.B) artikuluan aipatutakoak eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 16.1 artikuluan eta lehenbiziko xedapen gehigarrian aipatutakoak. Erregelamendu hori apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuak onetsi zuen.

Hamaika. 59 bis artikulua, lehen paragrafoa.

"Erregelamendu honen 53.6 artikulua aipatzen duen aukera ekitaldi guztian zehar erabiltzen ahalko da; horretarako, zentsuko aitorpena aurkeztuko da, eta ondorioak sortuko ditu aukera hori hautatu ondotik hasten den lehenbiziko likidazioaldian."

Hamabi. 59. ter artikulua gehitzea.

"59. ter. Erregistro-liburuak elektronikoki eraman aurreko aldiari dagokionez eman beharreko informazioa.

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzu telematikoan bitartez

eramaten hasi badira subjektu pasiboak, eta horretan hasi badira urte naturalaren lehenbiziko eguna ez den beste batean, behartuak egonen dira egun hori baino lehenagoko fakturazio erregistroak - urte natural berari dagozkionak- bidaltzera. Erregistro horietan epealdi horretan egindako eragiketen informazioa jaso beharko da, baldin eta eragiketa horiek erregistro-liburuetan jaso behar baldin badira erregelamendu honen 54.3, 55.4 eta 57.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat, erregelamendu honen 53.6 artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateak ez diren beste batzuentzat.

Informazio hori ematean, aditzera eman beharra dago eragiketa horiek dagozkiola subjektu pasiboa balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzu telematikoen bitartez eraman beharraren aurre-aurreko denbora tarteari. Betiere, hori dena egin beharko da bat etorritz Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko titularraren foru aginduaren bidez ezarritako zehaztapen teknikoekin, prozedurarekin, formatuarekin eta diseinuarekin, aipatzen baitira erregelamendu honen 54. eta 55. artikuluetan.

Denbora tarte horri dagozkion fakturazio erregistroak bidaltzeko epea betebeharra ezarri zen datatik ekitaldi horretako abenduaren 31ra bitartekoa izanen da.

2. Inbertsioko ondasunen erregistro-liburuak, zeina aurreikusi baita erregelamendu honen 56. artikuluan, barnean hartuko ditu ekitaldi osoari dagozkion oharrak.

3. Erregelamendu honen 54.3 eta 55.4 artikuluek aipatutako tributu arloko garrantzia duen bestelako informazioak barnean izanen ditu ekitaldi osoari dagozkion eragiketak."

Hamahiru. 60 bis.1 artikulua, e) letra gehitzea.

"e) Erregelamendu honen 9.1.2.B) artikulua aipatutako itzulketako agiri elektronikoari dagokion informazioa, betiere bidaiariak jasandako kuotaren itzulketari dagokion zergaren zuzenketa jasotzen duen likidazioaldiaren ondoko hilabeteko 16aren aurretik."

Hamalau. 62.3.1 bis artikulua. Hirugarren paragrafoa.

"Zergaren foru legearen 66. artikulua 1. zenbakiko bigarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ondare enpresarial edo profesionalaren osotasunaren edo zati baten transmisio hartuko da transmisio hori non eskualdatzailearen jardueraren adar bat edo batzuk osatzen duten ondare-elementuak sartzen diren, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 76.4 artikuluan aurreikusi bezala, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 116.4 artikuluan aurreikusi bezala; kontuan hartu gabe transmisio horri aplikatzekoa den zergaren foru legearen 7. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitako ez zergapetzeko kasuren bat."

Bigarren artikulua. Fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamenduaren aldaketa.

Apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio Betebeharren Erregelamenduko manu batzuk aldatu, eta honela gelditu dira:

Bat. 2.3. artikulua.

"3. Faktura egiteko betebeharra, aurreko ataletan aipatua, erregelamendu honetan ezarritako araei jarraituko zaie kasu hauetan:

a) Aipatzen den ondasun entrega edo zerbitzu ematea zergaren aplikazio lurraldean gauzatu dela ulertzen denean, salbu honako kasu hauetan:

a') Ondasunaren hornitzailea edo zerbitzuaren egilea aipatu lurraldean finkatuta ez dagoenean, zergaren subjektu pasiboa eragiketa horren hartzailea denean eta azken horrek faktura egiten ez duenean, erregelamendu honen 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b') Zerbitzua ematen duenak azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauaren XII. tituluko 6. kapituluak aipatutako araubide bereziren bat duenean (zuzentarau hori balio erantsiaren gaineko zergaren sistema amankomunari buruzkoa da), eta identifikazioko EBko estatua Espainia ez denean, zergaren foru legearen VIII. tituluaren XI. kapituluan ezarritakoaren ondorioetarako.

b) Hornitzailea edo egilea zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta dagoenean edo bertan finkagune iraunkorra duenean edo, bestela, bere ohiko bizitokia edo helbidea, eta bertatik egiten

dituenean ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak, eta entrega edo prestazio hori (aplikatzen zaizkien lokalizazio araei jarraituz) ez denean jotzen zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat, honako kasu hauetan:

a´) Eragiketa Europar Batasuneko kide den beste estatu bati lotua dagoenean, zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea denean eta faktura ez duenean azken horrek egiten ondasun hornitzailearen edo zerbitzu emailearen izenean eta kontura.

b´) Zerbitzua ematen duenak zergaren foru legearen VIII. tituluaren XI. kapituluaren 3. ataleko araubide berezia duenean, eta Espainia denean identifikazioko EBko estatua.

c´) Eragiketa Erkidegotik kanpo egindakotzat jotzen denean.

c) Zerbitzua ematen duenak, Erkidegoan finkatua ez egonik, zergaren foru legearen VIII. tituluaren XI. kapituluaren 2. ataleko araubide berezia duenean, eta Espainia denean identifikazioko EBko estatua."

Bi. 3.1.a) artikulua.

"a) Balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsitako eragiketak, zergaren foru legearen 17. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, salbu hurrengo 2. atalean aipatzen diren eragiketak. Hala ere, faktura egin beharko da aipatu artikuluen 1. 1., 2., 3., 4., 5., 10., 12., 26., 27. eta 28. apartatuen arabera zerga hau ordaintzetik salbuetsita dauden eragiketetan."

Hiru. 3.2. artikulua.

"2. Ez da beharrezkoa izanen faktura egitea Zergari buruzko Foru Legearen 17.1.14 artikuluko a) letratik n)-ra bitartean eta 15.ean definitutako zerbitzuak emateagatik, salbuespen hauekin:

a) Horiei aplikatu beharreko lokalizazio arauekin bat, ulertzen bada zergaren aplikazio lurraldean edo EBko kide den beste estatu batean egin direla eta horren mende badaude eta ez salbuetsiak.

b) Horiei aplikatu beharreko lokalizazio arauekin bat, ulertzen bada egin direla zergaren aplikazio lurraldean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan, haren mende eta salbuetsiak badaude, eta egin badituzte aseguru-etxeak, inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileak, pentsio funtsak kudeatzen dituzten entitateak, titulazio funtsak eta haien sozietate kudeatzaileak eta kreditu erakundeak ez diren enpresaburuek edo profesionalek, beren jarduera ekonomikoaren edo aipatu lurraldean kokatutako establezimendu iraunkorraren bidez."

Zergaren kudeaketan eskumena duen Nafarroako Zerga Ogasuneko zerbitzuak beste enpresaburu edo profesional batzuk salbuesten ahal ditu faktura egitetik, aurretik interesdunek eskatuta, justifikaturik dagoenean jarduera-sektoreko merkataritzako praktikengatik edo praktika administratiboengatik, edo fakturak egiteko baldintza teknikoengatik."

Lau. Hirugarren xedapen gehigarria.1.c), h') letra gehitzea.

"h´) Bidaia agentzien araubide berezia aplikatzekoa duten bidaia zerbitzuak."

Hirugarren artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Erregelamendua aldatzea.

Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduaren manuak honela idatzita gelditu dira:

Bat. 73. artikulua.

"73. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipena edo konturako diru-sarrera %19 izanen da. Atxikipena edo konturako diru-sarrera %15 izanen da jabetza intelektualetik eratorritako kapital higigarriaren etekinetarako, baldin zergaduna egilea ez bada."

Bi. Lehen xedapen gehigarria.

"Lehen xedapen gehigarria. Lehengoratze-mekanismoak, edo prestazioaldi ziurrak edo kontraaseguru formulak biziarteko errenten kontratuen gainean (2019ko apirilaren 1etik aurrera aseguruak).

Baldin lehengoratze-mekanismoak, edo prestazioaldi ziurrak edo kontraaseguru formulak baldin badaude heriotza kasuan, aseguratuak biziarteko errenten kontratuen gainean (hain zuzen

ere zergaren foru legearen 30.1.g) eta 45.3 artikuluetan aipatuak, 2019ko apirilaren 1etik aurrera aseguratuek); honako beharkizun hauek bete beharko dira:

a) Lehengoratzeko-mekanismoak badaude aseguratuen heriotzaren kasuan, lehengoratzen den biziarteko errentaren onuradun potentzial bat izan daiteke bakar-bakarrik.

b) Prestazioaldi ziurren kasuan, aldi horiek 10 urtekoak izanen dira gehienez ere biziarteko errenta eratu zenetik.

c) Kontraaseguru formulen kasuan, aseguratua hiltzeagatik guztira jaso beharreko zenbatekoa inola ere ezin da izan portzentaje hauek baino handiagoa, biziarteko errenta eratzeko erabilitako zenbatekoari dagokionez:

Urte kopurua, biziarteko errenta eratu zenetik	Portzentajea
1.a	%95.
2.a	%90.
3.a	%85.
4.a	%80.
5.a	%75.
6.a	%70.
7.a	%65.
8.a	%60.
9.a	%55.

10.etik aurrera	§50"
-----------------	------

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Indarra hartzea.

1. Argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra lehenbiziko eta bigarren artikuluetan aurreikusitakoak, eta 2019ko urtarrilaren lehen aurrera izanen ditu ondorioak.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra hirugarren artikuluan xedatutakoak, hartan aurreikusitako ondorioekin.